

LABURBIRA 2025 film laburren zirkuitu ibiltaria martxoaren 20an Andoainen

2025eko LABURBIRAK, euskarazko film laburren zirkuitu ibiltariak, 8 film laburrekin osatutako bilduma aparta eskainiko du aurtengo edizioan. Zirkuitua apirilaren 11ra bitartean izango da, Euskal Herriko 50 herritan antolatutako emanaldietan.

Euskaraz sortu eta ekoiztutako film laburren zirkuitua bere 22. edizioa beteko du. Alde batetik euskal zinemagintza hauspotzea du helburua, eta bestetik, zinemagileei beren lanak erakusteko aukera ematea eta herritarrei euskaraz sortutako film laburrak ezagutaraztea.

Urte hauetan guztietan bide arrakastatsua egin du LABURBIRAK eta euskal zinemagintzaren erakusleihu erreferentzial bihurtu da. Aurtengo ediziora 35 film labur aurkeztu ziren eta horietatik, zortzi hautatu dira. Guztira, 97 minututako film labur sorta osatu da, ikusleei ahalik eta emanaldi aberasgarriena eskaini asmoz. Zentzu horretan, denetariko lanak aurki daitezke, eduki zein estiloz. Gainera, hautatutakoen artean zenbait lan saritu ere badira.

Hauexek dira izenburuak eta egileak:

- UTLÄNSDK, Alba Lozano
- PROSOPAGNOSIA; Ekain Martinez
- PLAZER BAT; Sonia Estévez
- EUROPA; Ekain Irigoien
- GOODBAY KLEPER; Nerea Ayala, Patricia Fañanás, David Modroño eta Iraia Yarto.
- BETIKO GAUA; Eneko Sagardoy
- HOR KONPON; Jone Arriola Lobete
- PENTSATZEN DUT; Karmele Mitxelena Etxebeste

MARTXOAREN 20an, ostegunean, Bastero Kulturguneko ekitaldi aretoan, arratsaldeko 19:00etan aukera izango dugu aurtengo bildumarekin gozatzeko.

Laburbiraren aurtengo edizioari buruzko informazioa [esteka honetan](#) aurkitu dezakezue.